

## NORK JASO DITZAKE LAGUNTZAK

### **0 lerroa: Egoitza eraikinak birgaitzeko laguntzak.**

0 Jarduketa Lerrorako laguntzen onuradunak Jabekideen Elkarteak izango dira.

### **1.lerroa: Zaurgarritasuna.**

1.jarduketa lerrorako laguntzen pertsona onuradunak birgaitzekoak diren ohiko etxebizitza eta lokalen jabe diren pertsona fisikoak izango dira, urteko diru-sarrera haztatuak 25.000€ baino gehiago ez direnean.

### **2 lerroa: Segurtasuna eta 3 lerroa: Iriste erraztasuna.**

2 eta 3. jarduketa lerroetarako laguntzen onuradunak ohiko etxebizitzaren eta lokalen jabe diren pertsona fisikoak izango dira, urteko diru-sarrera haztatuak 39.000€ baino gehiago ez direnean.

### **4.lerroa: Proiektu estrategikoak eta energia eraginkortasuna.**

4. jarduketa lerrorako laguntzen onuradunak Jabekideen Elkarteak edo birgaitzekoa den elementuaren jabeak izango dira.

### **5.lerroa: Merkataritza lokalen hobekuntza:**

5. jarduketa lerroaren onuradunak merkataritza lokalean burutzen den jardueraren titular diren pertsona fisiko edo juridikoak, nahiz itxita edo jarduerarik gabeko lokalen jabeak izan daitezke.